

ERAIKIN-MAILAN ENERGIA-EFIZIENTZIA HOBETZEKO PROGRAMAREN LAGUNTZA-ESKABIDEA. DOKUMENTAZIOA. 3. PROGRAMA

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

| |
|---|
| <ul style="list-style-type: none">Egin beharreko jarduketaren proiektua edo, bere orde, jarduketaren justifikazio-memoria. Laguntzen azken hartzaileak diren Onuradunen oniritzia izan beharko dute biek. Memoria horrek deskripzioa, jarduketa-eremuka xehakaturiko aurrekontua eta planoak jaso beharko ditu, gutxienez. Era berean, jarduketa-proiektuaren dokumentazioan edo jarduketaren justifikazio-memorian, dagokionaren arabera, hasierako egoerarekiko aurrekusi den berrizta ezin daitekeen lehen mailako energiaren kontsumo-aurrezte, diruz lagundu daitekeen inbertsioa eta eskatzen den laguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. |
| <ul style="list-style-type: none">Dagoeneko eraikita dagoen eraikinaren energia-efizientziako ziurtagiria, egungo egoerarekin egina. Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak eskatzen duen edukia izan beharko du, teknikari eskudun batek sinatuta eta autonomia erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratuta egon beharko du (edo erregistro hori egiteko eskaria eginda bederen, dagokion deialdiak azken hori onartzen badu); eta proiektuan aurreikusitako jarduketak amaitzerakoan lortu nahi den energia-efizientziako ziurtagiria. Bigarren hori, jarduketa gauzatu aurretik lehena lortzeko erabili den sistema berbera aplikatuz lortuko da ere. Teknikari eskudun batek sinatu beharko du eta laguntza lortzeko eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatuta beharko du ere. <p>Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretua indarrean sartu baino lehen hasitako jarduketa balitz, jarduketa hasteko unean gai honi dagokionez indarrean zegoen araudiak dioena bete beharko du ziurtagiriak.</p> |
| <ul style="list-style-type: none">Bere kasuan, laguntzen xede diren birgaitze-lanen exekuzioa onartzeko erkidegoak, behar bezala elkartutako jabeen erkidegoek edo kooperatibaren batzarrak hartu duten akordioaren aktaren kopia edo idazkariak edo administratzaileak luzaturiko ziurtagiria. |
| <ul style="list-style-type: none">Hala badagokio, aktaren kopia edo idazkariak edo administratzaileak luzaturiko ziurtagiria, dirulaguntza eskatzeko baimendu den ordezkariaren izendapena jaso. |
| <ul style="list-style-type: none">Sinaturiko kontratua edo eskaintza eta sailka xehakaturitako aurrekontua. Aurrekontuak adierazi beharko ditu ere neurketak, unitate prezioak eta guztizko prezioak, dagokion BEZ edo zeharkako zerga baliokidea agertuz. Jabeen Erkidegoak aurrekontua berariaz onartu duela egiaztatuta beharko da ere. Kapituluak egindako laburpen-orriak enpresaren sinadura eta zigilua, IFK eta data jaso beharko ditu. |
| <ul style="list-style-type: none">Hirigintza-eskaria eta/edo lizentzia, beharrezkoa denean; edo udal-baimen baliokidea. Obrak dagoeneko hasita badaude, tituludun teknikari eskudunak sinaturiko obra-hasierako ziurtagiria edo zuinketa-akta, eraikuntza-enpresako obra-zuzendariak sinatua eta datatua eta jabeen oniritziarekin. |
| <ul style="list-style-type: none">Argazki-erreportajea (kolorez ahal bada). Birgaitze-jarduketek aldatuko dituzten gunen guztiak eta eraikinaren fatxada nagusia erakutsi beharko dituzte. |
| <ul style="list-style-type: none">Obraren guztizko aurrekontuan 40.000,00 euro (BEZ gabe) baino handiagoa baldin bada, hiru aurrekontu eskatuko dira, gutxienez. Hautaketa espresuki justifikatuko da memoria batean, proposamen onuragarria hautatu ez den kasuan. Atal horretan gehituko da aipatu justifikazioaren laburpena. |
| <ul style="list-style-type: none">Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren barruan ondokoa aurkeztu beharko da: aldeko ebaluazio bat edo, bere kasuan, erantzukizunpeko adierazpen bat, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 2. artikuluko 6. atalean aurrekusten duen "Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioa betetzen dela adieraziz. |
| <ul style="list-style-type: none">Hala badagokio, jabeen erkidegoaren IFKren kopia. |
| <ul style="list-style-type: none">Hala badagokio, kalteberatasun-egoeretan laguntza osagarriak eskatzea |
| <ul style="list-style-type: none">Itzuli beharrik gabeko laguntza eskatu badu: Hirugarrenaren altaren dokumentu bete, helbide honetan eskura daiteke https://www.euskadi.eus/altatercetos |
| <ul style="list-style-type: none">Hala badagokio: Ordezkaritza ematea |